

# Noaia!!!



Ekainaren 15ean frontoian  
Pirritx eta Porrotx



Uztailaren 1etik aurrera,  
gida-baimena puntuen baitan

# PLIS PLAS TXALO TA JOLAS

**AGINAGAKO**  
frontoian  
**KILIMISKA ANIMAZIO**  
taldea. "Jolas txokoak"  
ekainak 10 • 17:00

**HERRIKO** frontoian  
**PIRRITX ETA PORROTX**  
ekainak 15 • 17:00

Noaua!!

# Lehiaketa




Aurreko lehiaketaren irabazleak Maria eta Sandra

"Arditurri" (Elkar, 2002) lanaren ildotik jarraituz, hamabost kantu berri dakartzkigu Juan Mari Beltranek disko berri honetan. Musika tresna tradizionalak oinarri hartuz (txalaparta, txistua, xirula, ttuntuna, alboka, eskusoinua...), kantu tradizionalak eta berak sortuak uztartu ditu "Orhiko xoria" diskoan, kolore anitzeko lan bikaina gauzatuz. Suso Saliz arduratu da produktioaz. Ekainaren 24an, CD bat zozketatuko dugu e-posta bat bidaltzen digutenean artean. Animo!

[erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

UDARAKO GOIZAK ONDO PASATZEKO...

## UDAJOLAS 2006

### USURBIL

### UDAJOLAS

UDA TXIKI (2-3/3-4/4-5) urte  
Adin hauetara egokitutako  
ekintzak



UDA GAZTE (8-11) urte  
Irteerak, bizikletan ibili,  
bi egunetako irteera...  
eskalatu

**ORDUTEGIAK**

UDA ERDI 6-7 urte.  
Egunero joku ezberdin bat:  
espaziora bidaia, munduari itzulia,  
Asterix eta Obelix...

**TXANDAK**

Goizez:  
9:00-13:00

1goa uztailaren  
3tik 14era.  
2.a, uztailaren  
17tik 28ra.

IZENA EMAN NAHI BADUZU,  
DEITU TELEFONO HONETARA:

637 758 710 / 943 367 496  
arratsaldez eta gauez

Izena emateko azken eguna ekainaren 26a

Ekainak 28  
Gurasoen bilera

Arduradunak pedagogoak eta monitore esperientziadunak izango dira



## Txirrikitutik !!

**1** 992ko irailean Usurbilgo Udalak Euskal Herriaren Independentziaren aldeko mozioa onartu eta urte bereko azaroan Independentziaren Eguna ospatu zen. 1996an herriko hainbat taldek eta Udalak egun hori berreskuratzeko lanean hasi eta urriaren 14tik 20rako astean Independentziaren eguna ospatu zuten. Ospakizunen helburua lurraldetasun kontzeptua indartzea zen, izan ere oso gertu egon arren, Iparraldeaz ezer gutxi baitakigu: Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoa. Iparraldea hobeto ezagutzeko ahalegin bat egitea pentsatu zen eta hainbat ekitaldi antolatu ziren. Herriko taldeek, bakoitzak beren esparruan, Iparraldeari zegokion ekitaldi bana antolatu zuten. Horren adibide ondoko argazki hau duzue. Muskildiko Maskaradak bere ikuskizuna eskaini zuen herriko kaleetan zehar eta herritar asko gerturatu zen dantzak ikustera.



1996ko urria, Muskildiko Maskarada, Kaleberri  
 Noaua!K.E.

Zalao Arnaiz Iburguren

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
 Tlf: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehenakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatoria: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zalao Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**IKA MIKA** ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

## Aurkibidea

MAIATZEKO UDALBATZA PLENOA **5. OR.**

SANTIXABELETAN IKUSIKO DUGUNA **6. OR.**

LANBIDE HASTAPENENKO TAILERRAK **7. OR.**

Eskaintza zabala da Lanbide Hastapeneko tailerretan topatu duguna: sukaldaritza, gozogintza, ile-apainketa, edergintza, zurgintza... Izena emateko epea irekita dago.



PUNTU BIDEZKO GIDA-BAIMENA **8. OR.**

UDAN, HAUR TXOKOA AGINAGAN **10. OR.**

EUSKALTEGIA, UZTAILEAN ERE LANEAN **11. OR.**

SAGARDOAREN INGURUKO IBILALDIAK **12. OR.**

DISPERTSIOAREN AURKAKO MARTXA **13. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!



AINHOA AZPIROZ

## Futbola! "¡Cómo mola!"

**D**itxosozko futbola! Ez zait goi mailako futbola gustatzen. Gainera, ezjakina naiz, badakit, erre-konozitzen dut, baina halere ondo bizi naiz futbolik gabe.

Lehen, herrian egiten ziren futbol txapelketetako partiduak ikustera joaten nintzen eta ondo pasatzen nuen. Ez zuten goi mailako jokalaririk, teknikarik edo estrategiarik erabiliko agian, baina beste grazia bat zuten Agerialde atzeko partidu haiek: talde onena hau zela, futbolari onena eta gainera guapoena beste hura, arbitro lanetan auzoko ez dakit zein, bi taldeen arteko "piketa", lehenengo nesken taldeak mutilen kontra irabazi zuela... Orain ere herriko futbol txapelketetan antzeko giroa egongo dela uste dut, eta hori gustatzen zait.

Ez zaidana gustatzen goi mailakoa da. Ez dut sekula futbol partidurik ikusi telebistan. Ez dakit zer liga eta txapelketa dauden eta noiz den bakoitza. Munduko edozein herri galdutako pertsonak ni baino hobeto ezagutzen ditu jokalarien izenak. Nik ez dakit zein diren munduko jokalaririk eta talderik onenak. Askok barre egiten didate. Baina ez nau kezkatzen.

Halere, kirola bera baino inguruko negozioa da atzerakoa ematen didana. Ez ditut ulertzen fitxaketetako

milioitzarrak. Ezta Luis Ansoalde (gaur jakin dut zein den eta zer kargu duen) Realeko kontseilariak esandakoa ere: "Udal guztiek akzioak erosiko balituzte, gipuzkoar guztiak izango lirateke sinbolikoki Realeko akziodunak". Denak Realari begira eta horren peskizan egongo bagina bezala. Premia handiagorik ez ba egongo herriko diruak inbertitzeko!

Orain, Munduko Kopa dela-eta, Alemaniako Emakumeen Kontseiluak esan du 30.000tik gora emakume behartuko dituztela prostituzioan aritzera. Behartu. Txapelketetako partiduak jokatu diren hirietako burdelak beteta egongo dira ekaina osoan. "Munduko Koparen Mega-Burdela" deitu dioten Artemis etxean 80 emakume ingururen artean 300 bat bezero hartuko dituzte egunero. Suediako emakumeen berdintasunerako arartekoak "Puten Munduko Kopari" boikota egiteko eskatu du.

Lau aste iraungo ditu Munduko Kopak. Telebistan, prentsan eta irratian beste konturik ez da izango. Futbolaren erlijioan sinesten ez dugunoi harrিতa begiratu digute ez dugulako jakingo zeinek zeinen kontra jokatzeko duen eta sailkapena nola doan. Baina ez zaigu inporta.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

### ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

### Bazkide egin zaitez!

36 euro urte osorako

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_  
 E-posta: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Industri eta Iragarkei  
**SERIGRAFIA**  
**TANPOGRAFIA**  
 Karmisietan inprimaketa  
  
 943 371 954  
 UGALDEA POL.35-Z-USBIL

**ALIPROX**  
 Kale Nagusia 10  
 ☎ 943 361 182  
**USBIL**

**ITURGINTZA**  
**JOSEBA**  
**ARANGUREN**  
 ☎ 943 830 072  
 ☎ 659 883 912

**milorri**  
 kosmetika ekologikoa  
 mantentzen duen, diseinua  
 eta aholkularitza  
 Bodo Ibari, 10 - Usurbil  
 ☎ 660 754 774/699 152 282  
 milorri@usurbil.com

## Bazterketa politikoa salatzen UHLk aurkeztutako mozioa ez zen aztertua izan

**U**Hlk bazterketa politikoa salatzen mozioa aurkeztu zuen maiatzaren 30eko ohiko udalbatza plenoan. Baina mozioa ez zen aztertua izan. UHLk, prentsa-ohar bidez, gertatutakoari buruzko balorazioa igorri dio NOAUA!ri.

UHLk adierazi duenez, "beste udal plataformak bezala, udaletik kanpo utzi gintuztenetik hiru urte bete diren honetan bazterketa hori gogoratu eta salatzen mozio bat aurkeztu genuen udalbatzak maiatzaren 30ean egin zuen osoko bilkuran azter zezan. Alkate funtziotan diharduen Luis Mari Ormaetxeak esan zigun 'bere legitimatea zalan-tzan jartzen dugun bitartean' ez zuela moziorik aztertzeko asmorik. Euskal Herrian gatazkaren konponbiderako irekitzen ari den bidean, ilegalizazio-apartheid politikoa oztopo oso larria dela-eta, interes pertsonal eta partidistak alde batera utzita ilegalizazioa gainditzeko urratsak egitea eskatzen genuen, besteak beste. Horratx alkate 'demokratikoaren' urratsa. Gainera, plenoaren ordua maltzurki aldatu zuen goizeko 8:30era UHLk deialdia egin zuelako herritarrei plenera azaltzeko".

UHLren esanetan, "hitzez gure ordezkariak legez kanpo uztearekin ados ez daudela diote baina, ekin-tzez ondotoxoa baliatzen dute ezarri zaigun eskubide zibil eta politikoen



UDALBATZA PLENOA,  
ARTXIBOKO IRUDIA.

ukazioa. PSOE eta PP baino jokerra maltzurragoa delakoan gaude eta horrelaxe salatu nahi dugu, haiek, bederen, koherentziaz jokatzeko dutelako. Nola nahi du bada, beren legitimatea onartzea herritarrak gehiengoz aukeratu duen zerrenda baztertu eta gure eserlekuak hartuta agintea bereganatu baldin badu? Legitimitatea herritarrak ematen dutela gogorarazi nahi diegu Ormaetxeari, bere EAKo taldeari eta baita EAJko gobernukideari ere".

### 2006ko aurrekontuak behin betiko onartuak

2006ko udal aurrekontuak behin betiko onartuak izan ziren maiatzeko ohiko udalbatza plenoan. EA eta EAJ-PNVko zinegotzien baiezko botoekin behin betiko onartu zen aurrekontua. PSE-EE eta PPko zinegotziek aurkako botoa eman zuten.

## Ernion mendira irteera

**E**rnion dagoen Usurbilgo gurutzea jarri zela 100 urte bete direnez, Andatza mendizale elkarteak Usurbilgo Udalaren laguntzaz mendira irteera bat antolatu du ekainaren 11ean. Bi aukera daude: nahi duenak oinez egin dezake txangoa. Goizeko 06:30ean irtengo dira frontoi atzetik. Oinez joan nahi ez duena, autobusean

hurbildu daiteke Ernion aldera. Autobusa 08:30ean irtengo da eta Andatzarretaraino iritsiko da. Batzuk eta besteak, autobusean egingo dute etxerako bidea. Hamaiketako eta ekitalditxo bat egingo da Ernion, eta gurutze berri bat jarriko dute plaka batekin batera. Baina gurutze zaharra ere mantendu egingo da.

## Ekainaren 19an amaituko da dirulaguntzak eskatzeko epea

**K**ultur elkarteek, bestelako kultur erakundeek eta norbanakoek herrian egiten dituzten kultur ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarriak aditzera eman berri ditu udalak. Laguntza hauek 2006 urtean zehar egingo diren jarduerak sustatzeko izango dira. Dirulaguntza horiek eskatzeko epea ekainaren 19an amaituko da. Informazio gehiago udaletxean.

## Santueneko jubilatuen taberna esleitzeko deialdia

**S**antueneko Gure Elkartea jubilatuen lokaleko tabernaren erabilera eta zerbitzu publikoaren kudeaketa esleitzeko deialdia egin berri da. Lehiaketara aurkezteko epea zabalik dago oraindik. Informazio gehiago udaletxean.

## Buruntzaldean ikasketak euskaraz

**L**ehengo astean, Buruntzaldean lanbide heziketa zikloak eta batxilergoak euskaraz egiteko aukera badela azaldu zuten Buruntzaldeko ikastetxeetako ordezkariak. Sutegin bildu ziren, Hernani BHI, Lasarte-Usurbil BHI, Usurbil GLHBI, La Salle-Berrozpe Ikastetxea, Jose Langile Deuna Salesiar Ikastetxea, Leizaran BHI, Zine eta Bideo Eskola eta Aita Larramendi Ikastolako ordezkariak.



# Santixabeletan ikusiko duguna

**S**antixelak begibistan ditugu. Aurten berrikuntza askorekin datoz, gainera. Xexenak, batu-kada, erraldoi eta buruhandien konpartsen kalejira, BMX erakustaldia... Eta horrez gain, herrian beste festagune baten hasiera dugu aurten: Artzabalen kontzertuak eta txozna gehiago egongo dira.

Urtero bezala, Judo Txapelketarekin hasiko da festen egitaraua, ekainaren 24an. Ekainaren 25ean, bestalde, Haurren Areto Futbol Txapelketako finalak jokauko dira herriko frontoian. Hilaren 28an, halaber, gaztetxoentzat egongo da zer eginik: pintura lehiaketa, ur azpiko ekintzak kiroldegiko igerilekuan eta antzerkia edo beste ekintzaren bat.

Baina benetako jaiak ekainaren 29an hasiko dira, Umeen Egunarekin. Jokoak, puzgarriak, buruhandiak, pailazoak... Eta arratsalde partean, festak ume ez direnentzat ere zabaltzeko, txoznen irekiera. Jendea festara deitzeko txupinazioa 22:00etan piztuko da, eta ondoren, kontzertua egongo da txoznetan.

## Ekainaren 30ean,

### Berri Txarrak zuzenean

Ekainaren 30ean oilasko biltzaile txikiak herritik ibiliko dira iaz bezala. Bigarren urtea da haurrak, beren alde-tik, oilasko biltzaile moduan irteten direla. Beti bezala, noski, ohiko oilasko biltzaileak ere herrian zehar ibiliko dira. Eta gauetz, kontzertua frontoian: The Solanos, Despervicio eta Berri Txarrak taldeekin. Berri Txarrak taldea

“Jai.Musika.Hil” disko berriarekin Katalunia eta Irlanda aldean dabil kontzertuak ematen. Ekainaren 30ean gure artean izango dira.

### Santixel bezperan, Beteka taldea

Uztailaren 1ean, umeen danborrada izango da goizean, eta helduena arratsaldean. Askatasuna plazan zikiro jana egingo da ohi bezala, baina aurten gainera, gazteen bazkaria izango da Artzabalgo frontoian, eta ondoren, Artzabalen bertan, jokoak egingo dira. Arratsaldeko 19:00etan, bazkaria ondo jaisteko, zezenak egongo dira kiroldegi aurreko belardian. Egun honetan, gainera, herriko Beteka batukada taldeak bi emanaldi egingo ditu kaleetan zehar. Gauean, aukeratzeko beta egongo da: gazteentzako kontzertuak Artzabalen, Skasti, herriko Susmo taldea eta DJ Txakonen eskutik

Frontoian, ordea, ohiko bertso-saioa: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Jexux Irazu eta Jokin Sorozabal bertsoariarekin.

### BMX erakustaldia Artzabalen

Uztailaren 2an, Santixel Egunean, meza, lore eta salda banaketaren ondoren, erraldoi eta buruhandien konpartsa kalejiran irtengo da herrian zehar lehen aldiz. Txoznetan egingo den X. Mus Txapelketaren ondoren, BMX erakustaldia egongo da Artzabalen, hau ere estreinakoz. Bizikleta eta patinete gainean eginiko balentriak ikusi ahal izango dira bertan. Gauean, gazteentzako kontzertuak izango dira



BERRI TXARRAK TALDEAREKIN BATERA, DESPERVICIO ETA THE SOLANOS TALDEAK ARITUKO DIRA.



BMX ERAKUSTALDIA UZTAILAREN 2AN IZANGO DA.

Artzabalen, Nekin eta herriko Mendeku Itxua taldearekin. Baina frontoian, erromeria Patxi Perezekin. Biltzen diren guztiak dantzari jartzen saiatuko da, horretarako pausuak banan bana irakatsi behar baditu ere.

Azken egunean, uztailaren 3an, festak amaitzeko maskota jaitsiera egingo da, eta beti bezala, trakarekin amaituko dira herriko jaiak.

**LATXA**  
Kutxa denda

Janari prekozinatua  
Kongelatuak  
Bertako produktuak

Edozein z. ordu | Tel. 943 301 203

**txirriStra**  
KONTSEJU ZAHARRA 13  
943 300 400

pintxoak  
ogitartekoak  
plateak konbinatuak

**TABERNA**

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. © 943 362 725

## Lanbide Hastapeneko tailerretan matrikulatzeko garaia da

**E**skaintza zabala da Lanbide Hastapeneko tailerretan topatu duguna: sukaldaritza, gozogintza, ile-apainketa, edergintza, zurgintza... Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilen artean adosturiko lankidetzaren hitzarmenari esker lortu da hori.

Usurbilen sukaldaritza, gozogintza, ile-apainketa eta edergintza ikastaroak eskaini ohi dira. Lasarte-Orian, igeltseritza eta teknika berriak, zurgintza eta egurra ikas daiteke. Eta Andoainen, berriz, automobilaren karrozeria, galdaragintza eta soldadura ematen da.

Baldintza batzuk ba daude, hala ere, ikastaro hauetan parte hartzeko: 16-21 urte bitarteko gazteentzat dira tailerrak. DBHko graduatua lortu ez eta langabezian dauden edota lanbide bat ikasi nahi duten gazteentzat.

Ikastaroek bi urteko iraupena dute. Lehenengo ikasturtea (2006/2007) urritik ekaina bitartean eskaintzen da

eta 1.000 orduko oinarrizko formakuntza teoriko-praktikoa jasotzen dute ikasleek denbora horretan. Honako alorrak jorratuko dituzte ikasturte honetan: tailerra, lanbide teknologia, oinarrizko heziketa, arlo sozio-laborala, tutoretza eta orientabide indibidualizatua, enpresetara txangoak, kirola eta ekintza osagarriak. Metodologia berezia erabiltzen da, gainera, ikastaro hauek ematerakoan. Izan ere, ikasleak talde txikietan banatzen dira eta irakaskuntza indibidualizatua jasotzen dute.

### Praktikak inguruko enpresetan

Bigarren ikasturtea (2007/2008) urritik apirila bitartekoa, 550 orduko sakontze-ikastaroa da. Ondorengo arloak sakontzen dira bertan: tailerra, lanbide teknologia, oinarrizko heziketa, enprekin harremanak eta lan munduari begira burutzen diren ikastaroak (lana bilatzeko teknikak, eta abar). Osagarri modura, apiriletik uztaileara bitartean eskualde mailako lantegietan 450 orduko lan-praktikak burutzen



ILE-APAINKETA, EDERGINTZA, GOZOGINTZA ETA SUKALDARITZA IKASI DAITEKE USURBILEN.

dituzte.

Ikastaro hauetan, gainera, ikasleei ikasketa arautura itzultzeko bidea zabaltzen zaie, DBH graduatuak esku-ratzeko laguntza eskainiz edota lanbide heziketan sartzeko aukera zabalduz.

### Lana bilatzeko erraztasunak

Lanbide bat ikasteaz gainera, lantegietan praktikak egiteko aukera zabala dute ikasleek. Horren ondorioz, lan-kontratu bat lortzeko erraztasun handiagoa ere bai.

## 2006/2007 ikasturteko eskaintza

**Espezialitateak:** Sukaldaritza eta gozogintza, ile-apainketa eta edergintza, igeltseritza eta teknika berriak, zurgintza eta egurra, automobilaren karrozeria, galdaragintza eta soldadura.

**Nori zuzendua:** 16-21 urte bitarteko gazteak, Usurbilgo herri-tarrak, ikasten ari ez direnak edota langabezian daudenak.

**Izena emateko epea:** irailaren

15a arte, udaletxean 943 371951.  
**Sustatzaileak:** Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbilgo Udalak. Eusko Jaurlaritza. Europako Gizarte Fondoak.

## Administrazio zikloak Zubietan emango dira

**Z**ubietako Lanbide Eskolan prentsaurrekoa eskaini zuten Lanbide Eskolako eta Lasarte-Usurbil Institutuko ordezkariak eskaintza berezi baten berri emateko. Izan ere, orain da aurrematrikulak egiteko garaia eta bi ikastetxeen artean adostutako heziketa zikloen birkokapena aurkeztu nahi izan zuten. Patxi Vaquerizo Lanbide Eskolako zuzendaria eta Karlos Kortabarría Institutuko zuzendaria mintzatu ziren. Monika Betelu, IESeko zuzendariordea eta heziketa zikloen arduraduna ere bertan izan zen. Helburua eskaintza globalago eta osatua-

go bat ematea da, eta horretarako bi ikastetxeen eskutik administratiboko familia-ko bi heziketa ziklo emango dira datorren ikasturtean Zubietan: goi mailakoa, administrazioa eta finantzak; eta erdi mailakoa, kudeaketa administratiboa. Irakasleago lehengo klaustroko berbera izango da, Kaxkarron zegoena. Era horretan, ereduaren jarraipena erabat ziurtatuta geldituko da. Eskaintza, batez ere, DBH bukatzen duten ikasleentzat izango da. Ondoren batxilergoa edo heziketa zikloak egiteko aukera izango dute. Aurrematrikulen epea ekainaren 7ra arte-



koa da eta bi ikastetxeetan onartuko da. Matrikula egiterakoan, jada, Zubietara jo beharko da.

# Uztailaren 1ean jarriko da martxan puntu bidezko gida-baimena

**U**ztailaren 1ean jarriko da martxan puntukako gida-baimena. Hilabete eskas falta denean, gai honek oraindik zalantza ugari sortzen du gidarien artean. Zalantza horiek argitzen saiatuko gara erreportaje honetan.

Gidari bakoitzak puntu kopuru jakin bat izango du bere gida-baimenean. 3 urtetik beherako antzinakotasuna duten gidariak 8 puntu izango dituzte eta gainerakoek 12 puntu. Arau-hauste larriek edota oso larriek, puntu horiek galtzen joatea ekarriko dute eta puntu guztiak galduz gero, gida-baimena galduko da. Egindako arau-haustearen larritasunaren arabera, puntu kopuru ezberdinak galduko dira: 2, 3, 4 edo 6.

Egun bakarrean gehienez zortzi puntu galdu ahal izango dira. Baina gida-baimena egun bakarrean galdu ahal izango da arau-hauste oso larri bat baino gehiago eginez gero. Esate baterako, ezarritako abiadura %50ean gaintzea, drogen edota alkoholaren eraginpean gidatzea, lasterketak egitea, kontrako zentzuan gidatzea...

Sistema informatiko berri baten bidez eramango dute puntuaren kontrola. Gidari bat punturik gabe geratzen denean trafiko buruzagitzari jakinaraziko dio, gida-baimena baliorik gabe utz dezan.

Puntukako sistema honek, bestalde, ez du esan nahi isunak jarriko ez direnik. Arau-hauste arina egiten dutenek, 90 euro bitarteko isuna izango dute. Arau-hauste larriek 91 eta 300



euro bitartekoa eta arau-hauste oso larriek 600 euro bitartekoa.

Gida-baimenean zenbat puntu ditugun jakiteko telefono bat jarri berri dute eskura: 902 200 677. Internet bidez ere puntukako gida-baimenaren inguruko xehetasun guztiak ezagutzeko aukera izango dugu. Hauxe helbidea: [www.permisoporpuntos.es](http://www.permisoporpuntos.es)

Azterketa teorikoa berriz egingo bagenu, gaintuko al genuke?

## Lotu era egokian irudiak eta testuak

1		2		3		4		5	
6		7		8		9		10	
A	Zirkulazioa debekatua, edozein zentzutan	B	Gomendatutako gehienezko abiadura	C	Langarik gabeko trenbidea	D	Errepideko zorua egoera txarrean	E	Aparkatzea debekatua, egun bakoitietan
F	Atseden gunea	G	Eskubitik datozenek lehentasuna dute	H	Sarrera debekatua	I	Gutxieneko abiadura	J	Lehentasuna duen errepidea



# Puntuak nola galdu

## Bi puntu gutxiago

-Ezarritako abiadura gainditzea 20 km/ordukotan.

-Tunel, bihurgune edota arriskutsu izan daitekeen beste edozein tokitan ibilgailua geratu edota aparkatzea.

-Garraio publikorako karriletan autoa geratu edota aparkatzea.

-Radarrak non dauden jakiteko aparailuak autoan eramatea.

-Beharrezko argiak piztu gabe gidatzea.

-12 urtetik beherako haurrak motorean edo ziklomotorrean eramatea.

## Hiru puntu gutxiago

-Ezarritako abiadura gainditzea 30 km/ ordukotan.

-Zentzua aldatzeko ezarritako arauak ez betetzea.

-Aurreko ibilgailuarekin utzi beharreko tartea ez mantentzea.

-Telefono mugikorra, aurikularrak, edota arreta galarazi dezakeen edozein aparailu erabiliz gidatzea.

-Segurtasun uhala, kaskoa edota bestelako segurtasun neurriak erabili gabe gidatzea.

## Lau puntu gutxiago

-Ezarritako alkohol tasa baino handiagoarekin gidatzea. Putz egindako aire litroko 0,25 gramotik 0,5era

bitarteko baloreak (profesionalak eta 2 urtetik beherako antzinatasuna duten gida-baimenen jabeek litroko 0,15etik 0,30era).

-Autobide edota autopistetan debekatutako ibilgailuak gidatzea.

-Ibilgailuan bidaiari gehiegi eramatea, baimendutako kopurua %50ean gainditzen bada.

-Gida-baimenik gabe gidatzea.

-Suteren edota istripuren bat sorrazi dezakeen zerbait errepidera edota ingurura botatzea.

-Arduragabe gidatzea, gainontzekoak arriskuan jarritz.

-Stop batean edota semaforo gorrian ez geratzea edota lehenetasun neurriak ez errespetatzea.

-Kontrako zentzuan datozenak arriskuan jarriaz aurreratzea. Ondo ikusten ez den tokietan aurreratzea. Txirringularrak arriskuan jarriaz aurreratzea. Beste ibilgailuei aurreratzeko ez uztea.

-Autopista eta autobideetan atzera martxa egitea.

-Agenteek esandakoa ez errespetatzea.

## Sei puntu gutxiago

-Ezarritako alkohol tasa baino handiagoarekin gidatzea. Putz egindako aire litroko 0,5etik gorako baloreak (profesionalak eta 2 urtetik beherako



ALKOHOL TASA ALTUEKIN GIDATZE-  
AGATIK SEI PUNTU GALDU DAITEZKE.

antzinatasuna duten baimenen jabeek litroko 0,30tik gora).

-Drogen eraginpean gidatzea.

-Alkohol edota droga probak ez egitea.

-Kontrako norabidean gidatzea.

-Baimenik gabeko lasterketetan parte hartzea edota ausartegi gidatzea.

-Ezarritako abiadura %50ean gainditzea, 30 kilometro ordukotan gidatzea suposatuko balu.

-Gidari profesionalak, gidatzeko orduak %50ean gainditzea eta atsedeen denbora %50ean gutxitzea.

# Galdutako puntuak nola berreskuratu

## Puntu guztiak galdu badituzu

24 orduko ikastaroa egin eta azterketa bat gaindituz gero, zortzi puntu berreskura daitezke. Hala ere, sei hila-betez ezingo da gidatu. Ez bada gida-baimena galtzen den lehen aldia, hamabi hilabete iraungo du gidatzeko debeku horrek.

## Puntu batzuk galdu badituzu

Bi aukera ditugu:

1- Hamabi orduko ikastaro bat eginenez lau puntu berreskura daitezke. Gehienez bi urtetik behin egin ahal izango da hori; gidari profesionalak, ordea, urtean behin.

2- Bi urtez jarraian puntu gehiagorik galdu gabe egonez gero, hamabi puntuak berreskuratzen dira. Hiru urte itxaron beharko da puntuak galtzea eragin zuten arau-haustea oso larria izan bazen.

## Puntuak metagarriak dira

Puntuak batzen joateko aukera ere izango da. Hiru urtez punturik galdu gabe egonez gero, bi puntu metatuko dituzte gida-baimenean eta hurrengo hiru urtetan punturik ez bada galtzen beste puntu bat gehituko dute. Honela, gidari batek 15 puntu izan ditzake gehienez ere.

# Udan ez aspertzeko

## Aginagan zabalduko den Haur Txokoan 24 gaztetxo bilduko dira

**I**deia soil bat bezala aurkeztu zuten, hamar bat haur biltzeko asmoarekin, baina eskaera handia izan dute azkenean. Ane Manzisidor eta Leire Bereziartua Haur Txokoa antolatzen ari dira Aginagan, eta hasieran finantziario arazoren bat izan bazuten ere, badirudi dena martxoan doala.

**NOAUA!** Nondik nora otu zaizue Haur Txokoa antolatzeko asmoa?

**Leire Bereziartua.** Gu ikastaro bat egiten ari ginen, begiraleena, eta praktika batzuk egin behar genituen. Eta orduan komentatu ziguten praktikak urruti egin beharrean ea herrian zergatik ez genituen antolatzen. Eta pentsatu genuen, ludoteka martxan jartzen ari direnez eta haurrentzat txoko bat egin behar dutenez, herrian antolatzea, besterik gabe.

**Ane Manzisidor.** Usurbilen, Zubietan eta Santuenean horrelakoak egin dira, baina Aginagan ez zegoen haur txokorik. Erabaki genuen agian ideia polita izan zitekeela. Aginagan umeak badaude, badirudi ez daudela baina pila bat bildu da azkenean. Beraien artean ere harreman hobea edukitzeko balio lezake.

**N. Eskari handia izan al duzue?**

**L. B.** Bai, 24 ume uste dut daudela.

**A. M.** Gutxienez hamar ume behar genituen txokoak antolatzen hasteko. Eta azkenean, gurasoekin bilera bat antolatu genuen eta hogeitatu haur bildu zitzaizkigun. Eta orain gehiago dira, 24.

**L. B.** Ia denak Aginagakoak dira. Bi haur badaude Aginagan bizi ez direnak, baina gurasoak behintzat Aginagakoak dituztenak. Eta haur usurbildar bat ere badago.

**N. Haur Txokoa martxan jartzea ez zen lan erraza izango.**

**A. M.** Hasieran pentsatzen genuen haurrak ez zirela bilduko. Baina azkenean haurrak bildu ziren, eta lehenengo

arazoa dirua izan zen. Udaletxera jo genuen diru eskaria egitera eta esan ziguten elkarte baten izenean egin behar genuela. Aginagako Gurasoen Elkartearen izenean egin dugu azkenean, baina gauza da dirua datorren urterako emango dutela.

**L. B.** Esan ziguten, printzipioz behintzat, beraiek aseguru bakarririk ordainduko zigitela. Eta aseguru minimoak 350 euro balio du, begiraleak aseguratu gabe. Gu barruan sartuta 600 euro inguru litzateke. Printzipioz hori, eta gero gurasoek kudeatzekotan gelditu gara, aurtan behintzat.

**A. M.** Horrez gain Aldundian eskatu behar genuen diru laguntza. Ikastaroan esan baitziguten Foru Aldundian eskatu ahal genuela dirua, baina berandu ibili ginen. Zer aurkeztu behar genuen jakin genuenerako berandu zen. Datorren urterako behintzat badakigu nora jo, gauzak aurtan ondo ateratzen badira. Aurreko astean bilera egin genuen eta gurasoak ados agertu dira, beraz, beraiek ordainduko dituzte gastuak eta Udalak aseguru.

**N. Zer aurkituko dute Aginagako haurrek Haur Txokoan?**

**A. M.** Denetik. Ondo pasatzeko eta haurren arteko harremanak estutzeko txokoa izango da. Gero guraso batzuekin hitz egin genuen eta beste ideia bat ere badugu eguraldi txarra egiten duen egunetarako: udarako etxeko-lanak bidaltzen zaizkie haurrei, eta agian guraso batzuei zaila egingo zaie umeei etxeko-lan horiek egiten laguntzea. Horregatik, ez egunero, baina eguraldi txarra egiten duenean, agian, etxeko lanak egiteko denbora har genezake.

**L. B.** Irteerak, herriko txoko ezberdinak ezagutzea... Zeren askotan inguruko eta kanpokoa bakarrik ezagutzen baitute. San Estebango parkea, Aginagako mendiak... Irteera ezberdinak egin daitezke.

**A. M.** Eta gero, adibidez, pirata eguna



**LEIRE BEREZIARTUA ETA ANE MANZISIDOR, BEGIRALE IZANGO DIREN BI GAZTEAK.**

antolatu: piraten ingurukoak azaldu, mozorrotu, txaluparen bat egin...

**L. B.** Antzerki tailerren bat, tailer ezberdinak...

**N. Zein izango da Haur Txokoaren egoitza?**

**A. M.** Frontoi ingurura mugatuko da berez.

**L. B.** Eguraldi txarrarekin agian ludoteka berrian, esan ziguten martxan jarriko zutela. Apaiz Etxea ere hor daukagu.

**A. M.** Esan ziguten eskola ere hor daukagula, eguraldi txarra eginez gero, kasu larri batean besterik ez balego...

**N. Noiz hasiko zarete lanean?**

**A. M.** Uztaila osoan, goizetan. Baina astean egun batez, egunpasako irteera egingo dugu. Gurasoekin hitz egin genuen horri buruz eta ideia polita iruditu zitzairen.

**L. B.** Agian txikienekin pixka bat zaila izango dugu egun pasako irteera horiek egitea. 3 urtetik 14ra bitarteko haurrak dira, baina moldatuko gara.

## Ekainaren 15ean gure artean izango dira Pirritx eta Porrotx

**A**txor txikiz beteriko karabanan Abizi da Anakleto ijito zaharra. Atsegin ez egiten die beti harrera berean Pirritxi eta Porrotxi. Sutondoan "lerele-lerele" kantari eta kontu-kontari arituko dira oraingoan ere. Pailazoena ez da izango, ordea, bisita

bakarra, Romí bilobatxo bihurria eta Katuska hartza iristear baitira. Zatozte zuek ere Pirritx eta Porrotxekin "lerele, maite zaitut!" kantatzera!

Ekainaren 15ean osteguna, arratsaldeko 17:00etan herriko frontoian.



## Lagun ugari Pello Añorgaren saioan

**P**lis, Plas, Txalo ta Jolas ekimenari esker, Pello Añorga ipuin-kontalaria Kalezarren izan genuen aurreko larunbatean.



## Ekainaren 10ean jolas txokoa Aginagan

**A**bilezia eta trebetasuna beharko da Kilimiska animazio taldeak antolatuko duen jolas txokoa parte hartzeko. Ekainaren 10ean larunbata, Aginagako pilotaleku berrian, arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

## Uztailean zabalik izango da euskaltegia

**U**da honetan euskara ikasi nahi duenak aukera polita du Usurbilen bertan. Etumeta AEK Euskaltegiak euskara klaseak emango ditu uztailean. Usurbilgo Udalak diruz lagunduko du Etumetaren ekimena.

Ikastaroan izena emateko epea zabalik dago. Baina ez da uda honetarako AEKk egin duen eskaintza bakarra. Barnetegien aukera ere hor dago. Informazio gehiago Etumeta Euskaltegian eskuratuko duzu.

Helbidea: Kale Nagusia, 42 behea.  
Tf: 943 372001 / usurbil@aechnet.net

### AEK Eguna Larrabetzun

Larunbat honetan AEK Eguna ospatuko da Larrabetzun. Usurbildik autobusa aterako da. Irteera goizeko



BARNETEGI-ESKAINZA ERE ZABALA DA.

9:30ean izango da eta bueltakoa 20:30ean. Joan-etorriak 10 euro balio

du eta txartelak Etumeta AEK Euskaltegian eskura daitezke.



# Sagardoaren bideetan barrena

## Ekainean hasiko dira sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldiak

**X**XV. Sagardo Egunaren aurkezpenean aurreratu bezala, hilabete honetan hasiko dira Sagardo Egunaren Lagunak taldeak antolatu dituen ibilaldi gidatuak. Sagasti eta sagardotegi artean izango dira ibilaldiak, eta Ametza Larrañaga izango da gidari lanak egingo dituen. Txangoak ekainetik abendura bitartean hilabete bakoitzeko hirugarren igandeetan egingo dira, eta sagardogintzaren inguruan hamaika bitxikeria ikasteko aukera egongo da.

Gure arbasorik lehenenek ekin zioten sagardogintzari, eta oraindik gure artean martxan dirauen jarduera bat da, dudarik gabe. Izan ere, duela lau mila urteko geure arbasoek ba omen zuten sagarrondoaren berri. XV. mendetik XVIII. mendera, gainera, sagardoak merkataritzari eta Ameriketako kolonizazioari esker ikaragarritzko loraldia izan zuen. Eta honek ekarri zuen baserrien sorrera.

### Lau orduko ibilaldiak

Ibilaldian, herriko sagasti eta sagardotegiak bisitatuko dira. Arestian aipatu bezala, Ametza Larrañagak egingo ditu gidari-lanak. Sagastietan sagarrondo bariatate ezberdinak eta sagarraren jasotzea ikusteko aukera izango da. Sagardotegietan, ordea, sagarraren prentsatze prozesua, upeleratzea eta



AMETZA LARRAÑAGA IZANGO DA IBILALDIEN GIDARIA.

hartzidura. Horretarako lau zapabost orduko martxa egingo da Usurbilen eta Usurbilgo inguruetan barrena.

Frontoi atzetik irtengo dira ibilaldiak, goizeko 9:00etan. Esan bezala, lau edo bost ordukoa izango da eta herriko txoko ezberdinak ezagutzeko aukera egongo da. 200 metroko desnibelean eta bide asfaltatuetan egingo da txangoa, beraz oso erraza izango da, guztiok egiteko modukoa. Janaria norberak eraman beharko du, baina sagardoa antolatzaileen kontu joango da.

### Hilabeteko hirugarren igandean

Guztira zazpi martxa izango dira, hilabete bakoitzeko hirugarren igan-

dean. Beti ibilbide bera izango da: Zumetaren muraletik Kalezar aldera, Arratzain, Urdaira, Gorostidi, Sarikolako putzua, Aginaga, Urdaiaga, Santuenea, Zubieta, Kalezar eta Usurbilgo Plaza, besteak beste. Hogeita bat puntu ezberdin ikusiko dira guztira. Aukera paregabea herritarrok geure txokoak ezagutzeko, eta baita kanpoko lagunei gure altxorak erakusteko.

Lehen irteera ekainaren 18an izango da. Hurrengo datak hauexek dira: uztailak 16, abuztuak 20, irailak 17, urriak 15, azaroak 19 eta abenduak 17.

NEREA KORTA \_\_\_\_\_

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**

**LATAILLADE** **ITURGINTZA**

**GASA BEROKUNTZA**  
**MANTENIMENDUA ETA**  
**KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK**

Aritzitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

**Zendoia**

Kale Nagusia 3b · 943 37 40 71

## Oihana Lizaso eta Jokin Errastiren aurkako epaiketan adostasuna lortu zuten fiskaltzak eta defentsak

**E**rainaren 1ean zortzi euskal herritar epaitu zituzten Auzitegi Nazionalean. Lau egun irautekoa zen epaiketa, baina hasi orduko bukatu zen, zigorren gainean adostasuna lortu baitzuten fiskalak eta defentsako sei abokatuak.

BERRIA egunkariak aditzera eman zuenez, fiskalak behin-behinean eskatutako kartzela zigorrak erdira jaitsi zituen, tratuaren ondorioz.

Oihane Bakedano, Jokin Errasti, Aizeti Fernandez, Ekain Rodriguez, Oihana Lizaso, Jon Mintegiaga, Haritz Lasa eta Harkaitz Melchor ziren epaituak; Melchor ez beste guztiak preso daude, 2002tik. 120 urtetik gorako kartzela zigorra eskatzen zuen fiskalak,

oro har, behin-behineko eskaeratan, eta guztira 61 urteko zigorrarekin lortu zuten adostasuna.

Zigorrik handienak Oihane Bakedanok eta Jokin Errastik jaso zituzten: Bakedanok 18 urte eta erdikoa, ETako kide izatea, armak izatea eta lehergailuak jasotzea leporatuta, eta Errastik 17 eta erdikoa, delitu berberekin baina ETako kide-tza barik laguntzaile izatea egotzita. Bosna urteko zigorra zuten, aldiz, Aizeti Fernandezek, Ekain Rodriguezek, Oihana Lizasok eta Jon Mintegiagak, ETari laguntzea leporatuta; hiru urte eta erdikoa Haritz Lasak; eta bi urtekoa Harkaitz Melchorrek. Lasa berehala aske uzteko eskatu zuen Alvaro Reizabal abokatuak, dagoeneko bi urte



2002KO IRAILAREN 30EAN ATXILOTU ZITUZTEN BI GAZTEAK.

eta zortzi hilabete espetxean egin dituelako, jasotako zigorra baino gehiago beraz.

Epaiketa aretora joandako senide eta lagunek poztasuna agertu zuten, tratuaren berri izan zutenean eta epaiketa bukatu zenean. Berrogeita hamar bat lagun etorri ziren Euskal Herritik, epaiketa jarraitzera.

## Igande honetan, sakabanaketaren aurkako mendi erromeria Andatzan

**I**gande honetan, hilak 11, sakabanaketaren aurkako bigarren mendi erromeria ospatuko da. Etixerat!ek antolatu du eta Buruntzaldeko hainbat mendi taldek bat egin dute ekimenarekin. Aurten, Andatza izan da erromeria egiteko aukeratu den mendia. Hiru toki ezberdinetatik abiatuko dira mendizaleak.

Lehen zutabea Astigarragako Barandiaran plazatik abiatuko da goizeko 8:30ean, eta Hernaniko Gudarien plazatik (goizeko 9:00etan) eta Lasarte-Oriako Okendo plazatik (goizeko 10:00etan) igaro eta gero, Andatzarako bidea hartuko du.

Bigarren zutabea Zizurkilgo herriko plazatik aterako da goizeko 10:00etan.

Eta hirugarren zutabea Usurbilgo frontoi atzetik aterako da, goizeko 10:00etan. Hiru zutabe horiek bat



LASARTE-ORIAKO XIRIMIRI ELKARTEAN EGIN ZEN MENDI ERROMERIAREN AURKEZPENEA.

egingo dute Andatzan eguerdiko 12:00etan. Salda eta pintxoak banatuko dira eta jolasak ere egingo dira. Erromeria ere izango da (eguraldi txarra egingo balu, erromeria Usurbilgo

frontoian egingo litzateke). Astigarraga, Hernani, Andoain, Urnietan, Lasarte-Oria, Usurbil, Orio, Añorga eta Zizurkil herrietako taldeek bat egin dute Etixerat!en deialdi honekin.

## Primeran pasa genuen Ikastolaren Egunean

**A**urtengo Ikastolaren Eguna ere pasa zaigu. Honek ikasturtearen bukaera gertu dagoela adierazten digu...

Egun horretan primeran pasa genuen; txikienek urtero bezala beraien emanaldia eskaini ziguten kiroldegian, aurtengo gaia "Usurbil Erdi Aroan" izan dute.

LHtik aurrerakoek berriz primeran pasatzeko aukera izan zuten hainbat joko eta jolasetan parte hartuz.

### Udarregi ikastola



UMEEN JAIALDIAN ERDI AROA IZAN ZEN GAI NAGUSIA.



LH ETA DBHKO IKASLEAK GUSTURA IBILI ZIREN JOKOETAN.



PATXI PEREZEK DANTZAN JARRI ZITUEN BAZKARIAN BILDU ZIREN GURASO, IKASLE ETA IRAKASLEAK.

## Gomazko Paleta Txapelketan, Agiña laugarren

**E**kainaren 2an jokatu zen III. Gomazko Paletako Herri Txapelketaren finala. Lasarte-Oria nagusitu zen, Segurari 30-27 emaitzarekin nagusitu eta gero. Hirugarren eta laugarren postuak argitzeko partidari, Tolosa nagusitu zen. Agiña, beraz, laugarren izan da Gomazko Paleta Txapelketan.

Aginaga Angulak, Izagirre Angulak eta Viguisa Ardoak enpresei eskerrak eman nahi dizkiete antolatzaileek, sari banaketarako emandako marisko eta ardoarengatik.



## Futbol 7ko taldeek amaitu dute denboraldia

**F**utbol 7ko txapelketa jokatzeko duten herriko lau taldeek amaitu dute aurtengo denboraldia. Otsailaz geroztik "Itxiera torneoan" aritu dira Jalgi Kafe Antzokia 1. mailan eta Txotx Aialde-Berri, Olarrondo eta Balerdi Harategiak 3. mailan. Lehenengo hiru taldeak maila berean jarraituko dute datorren urtean, baina Balerdik 2. mailara igotzea lortu du bere multzoan lehenengo postuan amaitu ondoren.

Jalgi Kafe Antzokiak Futbol 7ko maila gorenean jokatu ahal izango du datorren denboraldian. 2005eko irailetik 2006ko otsailera bitartean jokatu zen "Irekiera torneoan" 8. postuan amaitu bazuten ere, ondoren jokatu den "Itxiera torneoan" postu hori hobetzea zuten hasierako helburua, baina azkenean ez da posible izan.

Azken jardunaldietan jaitsiera postuetatik gertu egon da 16 talde onenen artean dagoen herriko talde hau. Lau ziren 2. mailara jaisten ziren taldeak eta Jalgi Kafe Antzokiak 12. postuan amaitu zuen azken partida irabazi ondoren. Horrenbestez, datorren denboraldian ere 1. mailan jokatzeko aukera izango dute.

3. mailan dauden taldeei dagokionez, Balerdi Harategiak izan da 2. mailara igotzea lortu duen 12 taldeetako bat. "Irekiera torneoan" 2. mailan jokatu zuten, baina azken unean ezin izan zio-



JALGIK MAILA GORENEAN JOKATUKO DU DATORREN DENBORALDIAN.

ten mailari eutsi. "Itxiera torneoan", ordea, jokaturako 15 neurketetan ez dute bat bera ere galdu eta beraien multzoan lehenengo postua eskuratzeaz gain datorren denboraldian 2. mailan jokatzeko txartela lortu dute.

Hala ere, badirudi datorren denboraldian Futbol 7 txapelketa hau ez dutela jokatu. Azken berrien arabera, Balerdi Harategiak-eko jokalariek ez dute jarraituko eta talde bat gutxiago izan daiteke irailean hasiko den "Irekiera torneoan".

Txotx Aialde-Berriko jokalariek, aldiz, igoera oso gertu izan dute, baina azkenean esku hutsik gelditu dira. Igotzeko aukera ematen duen 2. postua eskuratu duen taldearekin berdinduta

amaitu dute "Itxiera torneoan". Berain aurkako neurketan ere 2-2 berdindu zuten, aldeko eta kontrako golen diferentzia erabili da berdinketa hausteko eta azkenean igoeraren saririk gabe gelditu dira usurbildarrak. Hala ere, 2. mailan talderen batek uko eginez gero datorren denboraldian 2. mailan jokatzeko aukeraren bat izan dezakete.

Olarrondo jatetxea herriko taldea ere igoera postuetan ibili da, baina azkenean, igoera lortzeko 2 puntu falta izan zaizkie. C multzoan 5. postua eskuratu dute eta datorren denboraldian ere 3. mailan jarraitu beharko dute.

JOSU ARANBERRI

### Eskubaloian alebin mailako finalerdietan

**A**lebin mailako Udarregi ikastolako neska eta mutilen eskubaloitaldeek Gipuzkoako Eskolarte Txapelketako azken fasea jokatu dute asteburu honetan. Larunbatean jokatu dituzte finalerdiak, mutilek Zumaiako Sekojota taldearen aurka eta neskek Elgoibarko ikastola D taldearen aurka. Partida hauek irabaziz gero finalak igandean jokatu lituzkete. Bestalde, Udarregi ikastolako infantil mailako nesken eskubaloitaldeak ezin izan zuen Euskadiko Eskolarteko Txapelketa eskuratu bizkaitarren aurka galdu eta gero.

### Usurbil, Herri Arteko Txapelketatik kanpo

**U**surbil Gipuzkoako Herri Arteko Pilota Txapelketatik kanpo gelditu zen pasa den ostiraleko itzuliko partiden ondoren. Azkoitian 2 eta 1 galduta kanporaketa gainditzea oso zaila zen eta herriko frontoian argi gelditu zen hori. Izan ere, herriko pilotariak ezin izan zuten neurketarik irabazi. Kadete mailan 6 eta 22 galdu zuten Xabi Santxok eta Eñaut Esnaolak, jubenil mailan 6-22 Imanol Esnaola eta Iker Zinkunegik eta nagusien mailan 18-22 Jabi Santxo eta Xabier Errastik.

### Herriko neskak aulki mugikorrean

**P**asa den igandean infantil-kadete, jubenil eta seniorren aulki mugikorreko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Orion eta parte hartzaileen artean izan ziren bi herritar ere. Azken urteetan herriko hainbat gazte hasi dira talde desberdinetan arraunean, baina baita neskak ere. Izan ere, Orioko estropadan izan zen Sarai Lizaso Orio Arraun Elkartean dabilen infantil mailako usurbildarra. Eta ez zen bakarria izan, Maialen Lertxundik ere parte hartu baitzuen aulki mugikorreko txapelketa honetan.

### Aholkua

# Arropetako etiketak

**A**ropetan egoten diren etiketek informazio erabilgarria ematen digute: lantegiaren datuak, produktuaren osagaiak, eta beraz, nola erabili behar dugun arropa horrek gehiago irauteko. Horregatik, garrantzitsua da etiketan, zer datu eta nola agertzen diren jakitea.

Etiketara irakurtzen dugunean arroparen prezioa eta neurria besterik ez dugu ikusten; hona hemen gainerako informazioa interpretatzeko argibideak:

### Arropa guztiak jaso beharrekoa

Egin, inportatu edo merkaturatzen duen enpresaren datuak, eta enpresaren

industri erregistroko zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo marka erregistratua.

### Arroparen osagaiak ere bai

Arropa egiteko ehun mota bakarra erabili bada, ehuneko ehun edo "dena" jar dezake, eta erabilitako ehun zuntzaren izena ondoren, edota izena mugagabeen eta hutsa ondoren.

Ehun konposatuak izanez gero, ehun desberdinak portzentajeen bidez adieraziko dira, eta ehunekoak handienetik txikienera joango dira.

### Portzentajeak nola "irakurri"

Ehun batek produktuaren pisuaren



%85a badauka, ez da beharrezkoa beste osagaiak aipatzea.

Zenbait ehun ezberdin badaude eta ez badira guztiaren %10a baino gehiago, "beste batzuk" erabil daiteke, eta ondoren osatzen duten portzentaje osoa adierazi behar da.

## Eguneko goardiako farmaziak

- Ekainak 8, osteguna**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Ekainak 9, ostirala**  
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte
- Ekainak 10, larunbata**  
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Ekainak 11, igandea**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Ekainak 12, astelehena**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte
- Ekainak 13, asteartea**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

- Ekainak 14, asteazkena**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte
- Ekainak 15, osteguna**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Ekainak 16, ostirala**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte
- Ekainak 17, larunbata**  
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Ekainak 18, igandea**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
*Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,*  
*Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).*

2006ko egutegi osoa: [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

## Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTE GUNETAN	(Gipuzkoa plazatik)
Zubieta-Donostia 7:55*/9:30(T)/13:15(T)/ 14:35*(T)/19:15(T)	12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)
JAI EGUNETAN	
Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik) 7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45	Zubieta-Donostia 11:25(T)/13:30(T)/15:30(T)/ 21:35 (T)
LARUNBATETAN	Donostia-Zubieta (Gipuzkoa plazatik)
Zubieta-Donostia 8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)	11:00(T)/13:00(T)/15:00(T)/ 21:00 (T)

\* Eskola egunetan.

T Autobus alkadeta beharrezkoa da. 943 361740.

## Autobus ordutegia Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25
08.00		08.25**	
08.00	08.20	08.25	08.45
08.40		09.05	09.25
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40		10.05	10.25
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40		11.05	11.25
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40		12.05	12.25
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40		13.05	13.25
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40		14.05	14.25
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40		15.05	15.25
15.00	15.20	15.30	
		00.00	00.25 00.45
		02.00	02.25 02.45
		04.00	04.25 04.45
		06.00	06.25 06.45

Soilik larunbata gauzez # Larunbatetan, Orion autobus alkadeta Aiarra

Larunbat lanegunetan

Asteburutan, jaietan

\*\*Aiaraino

Harremnatarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

## Autobus ordutegia Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35		08.00
07.45	08.05		08.30
07.45	08.05	08.15	08.40
08.15	08.35		09.00
08.45	09.05		09.30
08.45	09.05	09.15	09.40
09.30	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05		10.30
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05		11.30
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05		12.30
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05		13.30
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05		14.30
13.45	14.05	14.15	14.40
		23.15	23.35 00.00
		01.15	01.35 02.00
		03.15	03.35 04.00
		05.15	05.35 06.00

\*Aiatic dator

Asteburutan, jaietan

Larunbat lanegunetan

Soilik larunbata gauzez

Harremnatarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)

## Eusko Tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09:20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10:03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	22.23	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

\*Asteegunetan bakarrik

#Ez da Usurbilen geratzen

Harremnatarako: 902 54 32 10 / [www.euskotren.es](http://www.euskotren.es)



## Agenda

### Ekainak 10, larunbata

Kilimiska Animazio Taldearen jolas txokoa, 17:00etan Aginagako frontoian. Plis, Plas, Txalo ta Jolasen eskutik.

### Ekainak 14, asteazkena

Bularreko minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia Sutegin, 19:00etan.

### Ekainak 15, osteguna

Pirritx eta Porrotx pailazoak herriko frontoian arratsaldeko 17:00etan. Plis, Plas, Txalo ta Jolasen eskutik.

### Ekainak 16, ostirala

V. Felix Aizpurua literatura lehiaketako sari banaketa Sutegin arratsaldeko 19:00etan.

### Ekainak 17, larunbata

Aurora Parra Beatón sopranoaren kontzertua Sutegin. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, sarrera doan.

### Ekainak 18, larunbata

Sagasti eta sagardotegi arteko ibilaldia, Sagardo Egunaren Lagunak taldeak antolatuta. 9:00etan frontoian.

## Zubietako soka-dantza

Zubietako festetako soka-dantzaren zentseguak ostiral honetan hasiko dira (ekainak 9), arratseko 18.30ean. Entseguak Zubietako Lanbide Heziketa Eskolan egingo dira.

## Bularreko minbiziaren prebentzioari buruzko hitzaldia

Bular minbizia goiz atzemateari gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio, eta honi buruz ondo informatuak egotea funtsezkoa da. Honetaz eta tratamenduaz, prebentzioaz eta abarretaz hitz egingo du Lourdes Aritzurrik, Donostiako Onkologiko Institutuko doktoreak.

Hitzaldia Sutegin izango da, ekainaren 14an asteazkena, arratseko 19:30ean.

## Musikaren txokoa



## Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko garaia da

**D**atorren astean hasiko da 2006-2007 ikasturteko matrikulazio kanpaina Zumarte Musika Eskolan. Ikasgaiak hauek izango dira: musika-txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, perkusioa, klarineta, abesbatza, eskusoinua, alboka, pianoa, txistua, gitarra, trabeskako flauta, trikitixa, panderoa, informatika musikala eta talde instrumentalak. Gutxieneko adina, lau urte. Ekainaren 12tik ekainaren 16ra, goizez nahiz arratsaldez osatu daiteke matrikula.



Egunak: ekainak 12-16.

Ordutegia: goizez (10:00etatik 13:00era) eta arratsaldez (16:30etik 19:30era).

Informazio gehiago:  
943 37 15 94.


## Egin kontu

## Fosil erakusketa Sutegin

**I**zadi taldeak bildutako 30 fosil ikusgai izango dira Sutegin. Itasoko fosilekin osatuko dute erakusketa. Garai jurasiko eta kretazikokoak dira gehienak. Euskal Herria, Burgos eta Errioxan hartutako fosilak dira. Usurbilen hartutako bi fosil ere izango dira ikusgai.

Non: Sutegiko erakusketa aretoan.  
Antolatzailea: Izadi Natur Zientzi Elkarte.

Egunak: ekainak 12/ ekainak 17.



Ordutegia: astelehenetik ostirale-  
ra, 18:00etatik 20:30era. Larunbat  
eta igandetan, eguerdiz, 12:00etatik  
14:00etara.

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 • ASTEASU

© 943 69 68 52 • 620 800 186



## ETXEBIZITZA

- Usurbilen (kaxkoan) etxe bat salgai daukagu. 3 logela, egongela, amerikar sukaldia eta trasteroa. Berritua eta igogailuarekin. 288.500?. Interesatuak deitu 667243560 telefonora.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut premiaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.
- Capbreton (Landas) Home mobile (bungalow) alokatzen da. Hondartzaz gertu. Guztiz jantzita, bi logela dauzka, terraza eta jardina. Aste buruak eta uda. Ekonomikoa. 685 721 652 edo 665 734 009.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Tata todoterreno bat saltzen dugu. SS-BF eta 34.000km ditu. Ondo zaindua eta precio onean. Interesatuak deitu 676636038 telefonora.
- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde: 943373185.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- 17 urteko mutil bat naiz eta ekinetik irailera bitartean Usurbil eta inguruetan gustora lan egingo nuke. Eskaintzen bat baduzu deitu 650491552 telefonora gustora entzungo dut eta.
- Kamarera bat eskaintzen da. Esperientziduna. 616273785
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientzidunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrak ematen ditugu euskaraz zein gazteleraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egi-

teko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.

- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehentik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbairetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

## Lan-eskaintzak

- Oporraldian ordezkapen lanak egiteko neska bat behar dugu Laukote okindegian. Esperientzia izatea baloratuko da. Interesatuak deitu 943360980 telefonora.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabiltza 645403905.
- Zarautzko malekoian udan lan egiteko zerbitzariak behar dira. Interesatuak deitu 661972670 telefonora.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Terrenoa landatzeko erosi nahi dut, edifikatzeko ez. Tf: 943 36 11 09.
- Kazadora "bakera" eta "Quechua" zira gorri bat galdu ditugu Ardi-Beltz inguruan. Aurkitu badezu deitu 608772013 telefonora (Martxelo).
- Kotxe bat salgai, Opel Frontera. SS-AP, 3.000 euro. ITV eta bineta ordainduta. Telefonoa: 656 712 340 (Luis).
- Antxumeak eta ibiltzeko zaldi bat saltzen ditut. Interesatuak deitu: 657633461.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukutzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. E-maila profesionala, modu onean. 617242660 / apore@euskalnet.net
- Telebista aldatzekotan bazara eta zer egin ez badakizu etxean daukazunarekin, gustora hartuko genuke. Deitu 943360321 telefonora eta geroni pasako ginateteke jasotzera.
- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. 667 694 049.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa, prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldia. 1.200km. Prezioa 6.000 e. Tf. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosi-ko nuke. Tf. 605 72 48 24
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

## Txerrimunik ordainetan !!

## Zorionak maitia!!

Ekainaren 7an zure urtebetetze eguna izan zen, hiru muxu handi aitaxo eta amatxoren partez.



## Zorionak Inaki!

Ekainaren 14an 9 urte egingo dituzu. Muxu handi bat etxeko guztien partez eta ondo pasa ezazu zure egunean.



## JAIOTAKOAK

- Irene Martin Navarro maiatzaren 21ean.

- Markel Bengoetxea Arrieta maiatzaren 22an.

- Kattalin Armendariz Tolosa maiatzaren 26an.

- Ibai Lopez Bastida maiatzaren 29an.

- Aritz Rueda Mediavilla maiatzaren 30ean.

Oharrak,  
Txerrimunik ordainetan  
doaneko atalak dira

Datorren alea: ekainak 16.

Zorion-agurrak ekainaren 12a baino lehen ekarri edo bidali.

erredakzioa@noaua.com

NOAUA! Kultur Elkartea  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20170 Usurbil

**J.ORBEGOZO**  
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA  
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 • 659602789

**MIKEL IZAGIRRE**  
ELEKTRIZITATEA  
943 365 095  
609 068 111  
DOIZ ARGI ETXEA 37 KALZAR

**ERRAZKIN**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
kale Nagusia, 1  
Tel./Faxo: 943 365 125  
Mobbil: 629 420 565 - 649 435 470



# Usurbil aztergai

**NOAUA! Beka Deialdia 2006**

NOAUA! Kultur Elkarteak elkarteak@noaua.com 943 360 321

NOAUA! Kultur Elkarteak  
2.000 euro bildu ditu  
Usurbilgo herriari  
buruzko  
ikerlan-proiektuak  
burutzen laguntzeko.  
Historia, soziologia,  
biologia, kultura...  
Burutu nahi den ikerlana  
edozein alorretakoa  
izan daiteke. Baina, beti  
ere, Usurbilgo herriari  
buruzkoa.

Eskaerak jasotzeko  
epea 2006ko irailaren  
15ean itxiko da,  
eguerdiko 12:00etan.

Beka deialdiaren  
oinarriak NOAUA! Kultur  
Elkartearen egoitzan  
(Bordaberri 3  
Eguzkitzaldea 20.170  
Usurbil Gipuzkoa)  
eta [www.noaua.com](http://www.noaua.com)  
webgunean.

# Edertu zaitez!



- ✓ Depilazioa
- ✓ Manikura
- ✓ Aurpegiko tratamendua
- ✓ Pedikura
- ✓ Solariuma
- ✓ Makilatu

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549



Depilazioa  
Makilajea  
Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951

## Elexpe

ileapaindegia



Betileen tintaketa  
eta permanentea

Estetika • Tatuariak

Zutikako eta Elzandako  
Solariuma

Muna-Lurra 2. ☎ 943 370 462

## INTZA

ileapaindegia



ILE TRATAMENDUAK

✓ Betileen tintaketa  
eta permanentea

✓ Zorriak  
eta tratamendua

Eskaintza bereziak!  
Solarium-eko bonuetan

K7 Nagusia 8 ☎ 943 363 641

Eskaintza  
Solariuma  
35€

## Loli Lizarralde

ileapaindegia

Estetika Zentroa  
Michele Casanova eskutik.

Zubiaurrenea 58 ☎ 943 371 111

## TXARO

- X Ile zoriketa
- X Ilde apinketa
- X Zutikako  
solariuma



Eskabasa 8 - ☎ 943 371 886